

UDAL KIROL KONTSEILUA: AKTA

ESKEMA	
<i>Izenburua</i>	UDAL KIROL KONTSEILUA..... zbkia: 02-11
<i>Bileraren datuak:</i>	<p>Bertaratutakoak:</p> <p>Oarsoaldea I.K.E.- Oartzungo S.S.K.T. – Oartzun K.E. – Girizia Mendizale Taldea – Txost – Hautzaro ikastola – Elizalde Herri Eskola – Euskal Makila taldea – Oartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotzia- Oartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikaria- Jokin Sukuntza Oartzun Udaleko Udal Kirol Kontseiluko koordinatzailea- Jokin Agirre Oartzun Udaleko Alkatea Esait Okisa S.A. Elizaldetarrak Judo Elkartea Hautzaro Kirol Elkartea Honbu kenpo – kai taldea DPO-Baobab</p> <p>Ez dira azaldu:</p> <p>GEZAK – Oiarpe K.E. Power Rangers Areto Futbol taldea Tximeleta K.E. Kizkitza Makazaga Rexu Mazusta M^aAsun Arizkuren Lartaun Zikloturistak Elkartea Hautzaro Mendi Taldea Girizia sokatira Girizia eskalada Girizia txirrindularitza HELTA</p> <p>Gai zerrenda:</p> <p>Eguna: 2012. ko ekainaren 5 a. Hasiera ordua: 19:00 Amaiera ordua: 20:45 Gai zerrenda:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kirolaz.com datu basearen aurkezpena 2. Diru laguntzen banaketa. 3. 2012-2013 denboraldirako funtzionamendu gastuetarako diru laguntza irizpideen eztabaida eta zehaztapena, lan taldearen proposamenen aurkezpena. 4. Eskaerak eta galderak

Lehenik eta behin, Udal Kirol Kontseiluan parte hartzen duen bakoitzak bere aurkezpena egin du.

Honen ostean, Oiartzungo alkatesak 2012ko egoera ekonomikoaren aurkezpena egin du, udalaren errealitatearen egoera azaltzeko intentzioarekin.

1.-Kirolaz.com datu basearen aurkezpena

Gazteria eta Kirola teknikariak kirolaz.com webgunearen aurkezpena egiten du, bertan kudeatuko dira Oiartzungo elkarteetan parte hartzen duten kirolariak hemendik aurrera. Aurten probak egin dira, eta Iraila Urrirako prest egon behar zen programa orain jarri da martxan.

Datu base honetatik aterako dira diru laguntza irizpideetan onartutako irizpideetako datuak.

Datu base honetatik aterako dira ere udalak erabiliko dituen harremanetarako datuak, honegatik elkarteei eskatzen zaie, eguneratua izatea.

Elkarte gehienekin jada egin da datu basea aurkezteko lehen bilera (nola erabili, erabiltzailea sortu etab.), bilera egin ez den elkarteekin egiteko asmoa dago ahalik eta azkarren dena eguneratuta izateko.

Datu baseak prozesu bat dauka, sortua dago, Udal plenoan onartu behar dute eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan inskribatu beharra dago.

Datu basea arazo gabe kudeatu ahal izateko, kirolariei baimena eskatu behar zaie, horretarako hurrengo urteko inskripzioetan hurrengo esaldia agertu beharko da:

“Baimena ematen dut, izen emate honen ondorioz lortutako nire datu pertsonalak Oiartzungo Udalaren jabetza den KIROLAZ datu basean txertatzeko eta datu estatistiko gisa erabili daitezen”

Hurrengo ikasturterako datu basearen horniketarako epe batzuk definitu dira:

Datuak betetzeko epea: Irailaren 1tik Azaroaren 30ra
Datuak egiaztatzeko ziurtagiriak entregatzeko epea: Abenduak 15

2.-Diru laguntzen banaketa

Aurreko Udal Kirol Kontseiluan onartutako irizpideen erreposoa egin da.

- 1.- Kirolari kopurua
- 2.- Emakumezko kopurua
- 3.- Oiartzuar kopurua
- 4.- 12-18 urte bitarteko kirolari kopurua
- 5.- Entrenatzaileen euskara maila.

Irizpide hauen erreposoa egiten da, aipatzen da 2. irizpidea, onartzeaz gain lan taldera bideratu zela bertan analisi bat egin zedin ea nola neur zitekeen irizpide hau.

Ikasturte honetako diru laguntzak beraz, irizpide hauen gain geratu dira. Udalak irizpide bakoitzaren pisua erabaki du, baina, aipatzen da etorkizunerako helburua dela pisu hauek ere Udal Kirol Kontseiluak jartzea.

Ikasturte honetan udalak irizpide ezberdinei emandako pisuak aztertzen dira.

- 1.- Kirolari kopurua **X puntu 1**
- 2.- Emakumezko kopurua **X 0,5 puntu**
- 3.- Oiartzuar kopurua **X puntu 1**
- 4.- 12-18 urte bitarteko kirolari kopurua **X 0,5 puntu**
- 5.- Entrenatzaileen euskara maila. **X 4 puntu**

Diru laguntzak eskatu dituzten elkarteentzako puntuazioak ikusi dira honen ondoren.

2011-2012 denboraldiko elkarteentzako diru laguntza partidak ikusi dira ondoren:

1. Funtzionamendu gastuetarako diru laguntzak: 40.500 €
2. Behin Behineko doiketa: 12.000€

Udalak adierazi nahi du partida hauentzat helburua, irizpide berriak onartzen eta sartzen doazen heinean 2.

behin behineko doiketa horren partida txikitzen joatea dela, etorkizun batean dena 1. Funtzionamendu gastuetarako diru laguntzak puntuan sartuko delarik.

Elkarte ezberdinei gelditzen zaien diru laguntzak ikusten dira.

Azaltzen da, mendi taldeak irizpide hauetatik kanpo gelditzen direla aurreko Udal Kirol Kontseiluan zehaztu zen bezala, beraien parte hartzea eta bestelako indikadoreen jarraipena ezin delako modu berdinean egin.

Oarsoaldea Igeriketa Taldea era irizpide hauetatik kanpo gelditzen da, eskualdeko azterketa egin bitartean.

DPO-BAOBAB Taldeari dagokionez, hauek diru eskaera zehatza egin dute.

Informatzen da diru laguntzak hurrengo plenotik pasako direla (Ekainak 20) eta hortik kontu hartzailerara pasako direla zuzenean, atzerapena egon baita aurtan.

3.- 2012-2013 denboraldirako funtzionamendu gastuetarako diru laguntza irizpideen eztabaida eta zehaztapena, lan taldearen proposamenen aurkezpena.

Lan taldearen eraketa nola egin zen azaltzen da:

Lan talde hau osatzeko deialdi ireki bat egin zitzaion Oiartzungo Kirol Eragileei bertan parte hartzeko. Bilera honetan bildutako guztien artean, erabaki zen, lan taldea funtzionala izan zedin, ez zela oso handia izan behar, Talde mota guztiak agertu beharko lirakeela (handiak, txikiak, emakumearen errepresentazio berezia zutenak, bertako kirolen bultzatzaileak...) hurrengo lan taldea osatu zelarik:

Udaletik:	Jokin Agirre
Elkarteetatik:	Txost
	Tximeleta
	Oiartzun K.E.
	Oarsoaldea igeriketa
	Haurtzaro Atletismoa

Bilerekin hasita, Xabi Salaberriak (Haurtzaro Atletismoa) lan taldean ez jarraitzeko erabakia hartu zuen.

Udal Kirol Kontseiluak lan taldera bidalitako irizpideak hurrengo hauek dira:

- a) Genero aldagaia
- b) Bereziki sustatutako modalitateak
- c) Beteranoak
- d) Kirol modalitate araberako entrenatzaile/kirolari ratioa
- e) Entrenatzaileen gaitasunak
- f) Entrenatzaileen euskara erabilera eta euskara elkartean
- g) Kirolari ezinduak
- h) Klubaren estruktura
- i) Federazio eta beste gastuak

Lehenik, lan taldean argi geratu zen bere funtzioa aurreko Udal Kirol Kontseiluan erabakitako irizpideak aztertzea zela, eta ez zela irizpide berririk tratatuko, horiek Udal Kirol Kontseiluan tratatu behar zirelako. Honez gain, argi geratu zen lan taldean landutako gaiak eta hartutako erabakiak Udal Kirol Kontseilutik pasa behar dutela onartuak izateko, eta honek duela azken hitza.

a) Genero aldagaia

Lehenengo aztertutako irizpidea "a) Genero aldagaia" izan zen. Helburua Oiartzuar emakumeen kirol parte hartzea bultzatzea zela erabaki zen, datuen arabera Gizonen parte hartzea emakumeena baino %20 gehiagokoa zela ikusi baizen. Emakumea erreferentzi bezala izatea garrantzitsua zela ere ikusi zen.

Analisi sakon bat egin eta gero, erabaki zen bi arlo ezberdinetan banatuko zela irizpide hau, parte hartzaileak eta entrenatzaile/ zuzendaritza.

1) PARTE HARTZAILEAK: bi irizpide tratatu ziren: Emakumeen parte hartzea eta klubaren estrategiak edo lanak emakumeen parte hartze hau sustatzeko. Emakume kirolari bakoitzari puntu erdi bat gehiago ematea erabaki zen (kirolari bakoitza puntu bat izanik). "Emakumeen parte hartzea handitzeko estrategia" ere onartu zen, baina "inaktibo" utziz jarraipena egiteko zailtasunengatik eta emakumeen partehartzea progresatzen ari zelako, progresio hau gelditzen zela ikusten bazen, aktibatuko litzateke.

2) ZUZENDARITZA ETA ENTRENATZAILEAK: Hemen ere bi irizpide sailkatu ziren: Zuzendaritza orekatu bat bilatzea edo izatea, hirukote erregela baten bitartez, eta entrenatzaile emakumeak ere, entrenatzaile puntuazioaren

(titulazio espezifikoa, ez EGA) %50 gehiago (hau da 1,5 puntu, puntu bakoitzeko) izatea.

GENERO IRIZPIDEAREN PROPOSAMENA BI LINEATAN BANATU DA IRIZPIDEA

1.LINEA PARTEHARTZAILEAK

PARTEHARTZAILEAK, EMAKUMEEN PARTEHARTZEA HANDITU
EMAKUME KIROLARI BAKOITZAK KIROLARIEI EMANDAKO PUNTUEN %50 GEHIAGO (0,5 PUNTU GEHIAGO, KIROLARI BAKOITZAK PUNTU BAT BADU)
EMAKUMEEN PARTEHARTZEA HANDITZEKO ESTRATEGIA
EMAKUMEEN PARTEHARTZEA HANDITZEKO PLAN BAT EGITEA IZANGO DA PROPOSAMENA, BERTAN, ELKARTEAREN ERREALITATEA, AURRERA EGITEKO EKIMENAK, HELBURUAK... AZALDUKO DIRELARIK. ESTRATEGIA ENTREGATU ETA BIDERATU: 0,25 GEHIAGO EMAKUMEKO* PLANAREN ETEKINAK IKUSI (HURRENGO URTEETAN): 0,50 GEHIAGO EMAKUMEKO*
INAKTIBO GELDITZEN DA BEHARRA IKUSTEN DEN ARTE

2. LINEA ZUZENDARITZA ETA ENTRENATZAILEAK

ZUZENDARITZA, OREKATUA GENEROAREKIKO %50 GENEROKO
ADIBIDEZ: 15 PUNTU(KIROLARI BAKOITZA PUNTU BAT ERREFERENTZIA HARTUTA)
HONA IRITSI ARTE EHUNEKOA (BOROBILKETAREKIN) GUTXIEN DAUDEN EHUNEKOA HARTU ETA %50REKIN (IDEALAREKIN) HIRUKOTE ERREGELA
ADIBIDEAK: 10 PERTSONA ZUZENDARITZA BATZORDEAN. 5 MUTIL 5 NESKA (%50)= 15 PUNTU 7 MUTIL 3 NESKA (%30)= 9 PUNTU 2 MUTIL 8 NESKA (%20)=6 PUNTU
ENTRENATZAILEAK, EMAKUMEEN PARTEHARTZEA BULTZATU
ENTRENATZAILE NESKA BAKOITZAK TITULATUTAKO ENTRENATZAILEAREN PUNTU BAKOITZARENGATIK 1,5

f) Entrenatzaileen euskara erabilera eta euskara elkartean

Euskararen erabileraren inguruan, azaldu zen, Euskara sailetik elkarte bakoitzak beraiekin duten konbenioen arabera, asebetetze zenbaki bat helarazteko prest azaldu zirela. Egoki bezala onartu zen euskararen betetze maila aztertzeke.

e) Entrenatzaileen gaitasunak

Gai honetan kirol bakoitzaren titulazio espezifikoaren inguruan hitz egin zen. Bertara Foru Aldundiak bidalitako baremazioa azaldu zelarik.

	TITULU AKADEMIKOAK	FEDERAZIO TITULAZIOAK	
0	Eskola kiroleko titulazioa...	0. maila	GKP (PDJ)...
1	Gorputz eta kirol ekintzen teknikaria (Tafyd)	1. maila	monitorea
2	Irakasle ikasketak heziketa fisikoa (kirol magisteritza)	2. maila	territoriala
3	SHEE / IVEF (Heziketa fisikoaren eta kirolarien zientzien lizentziatua)	3. maila	nazionala

Erabaki zen gai honetan, behin hau Udal Kirol Kontseiluak aurrera eramatean, kirol modalitate bakoitzarekin hitz egin eta kirol modalitate bakoitzaren baremazioa egitea.

Mailaketa hau onartzea erabaki zen, eta baloratzeko orduan, aurreko maila bikoiztea hurrengo mailak, hau da,

Mailak	Adibidea 1	Adibidea 2
0. maila	Puntu 1	2 puntu
1. maila	2 puntu	4 puntu
2. maila	4 puntu	8 puntu
3. maila	8 puntu	16 puntu

g) Kirolari ezinduak

Kirolari ezinduen gaian ez zen inolako zalantzarik izan, beharrezkoa zen diru laguntza irizpideetan sartzea, kirolari ezindu bakoitzeko puntuazio bat jarriaz, irizpideen pisua udalak zuenez, bere gain utzi zen eman beharreko baremoa.

b) Bereziki sustatutako modalitateak

Atal hau, honen inguruan hitz egin ondoren, oraingoz horrela uztea erabaki zen, momentu hauetan diru laguntza irizpide hauek ematen zituen aldaketa bortitzak amortiguatzeko erabiltzen ari baizen. Hala ere, puntu hau aurrerago berriz hartzeko intentzioarekin utzi zen.

i) Federazio eta beste gastuak

Irizpide hau hitz eginda hurrengo ondorioztatu zen: Kirol bakoitzak bere barne logika eta funtzionamendu ezberdina duenez ezin zuen diru laguntza irizpide batek hau bete. Ezezkotzat hartu zen irizpide hau.

Udal Kirol Kontseiluak lan taldeak landutako irizpideetatik ateratako ondorioak onartzen ditu.

Hurrengo urterako, lan taldearen jarraipena onartzen da, eta berriz osatzeko deialdi ireki bat egitea erabakitzen da. Honez gain, b) Bereziki sustatutako modalitateak, hurrengo Udal Kirol Kontseilurako landua eramateko lana eman zaio lan talde honi.

4.- Eskaerak eta galderak

a) Oarsoaldeko igeriketa taldeko ordezkariak Oiarzungo gidaren inguruko keza bat agertzen du: Elkarerik ez da azaltzen, Eskaera: hurrengorako hau kontutan hartu eta azaltzea.

b) Eskola Kirolerako lehiaketa baten adjudikazioa topatu du Oarsoaldea igeriketako ordezkariak, Kirolaisi XXI S.L ri bideratua, galdetzen da zer den hau, ez dela Udal Kirol Kontseiluan azaldu... Azaltzen da, lehiaketa hori aurretik zegoen eskola kirol, eskola pilota eta udal kirol kontseilua kudeatzeko zerbitzua dela eta lehiaketa bezala berriz atera zela lehengo ikasturte amaieran, eta erabakitzen da, Udal Kirol Kontseiluan Gazteria eta Kirola sailaren aurrekontuak azalduko direla.

c) OSSKT-ko ordezkariak galdetzen du barrikoteak, antzerkiak etabar, kiroldegian egin behar diren, ezin diren Madalensorora eraman. Erantzuten da, azpiegiturengatik errazagoa dela kiroldegian egitea, eta urtariletik maiatzera Madalensoron pilotak dena okupatzen duela.

d) Ugaldetxo futbol zelaira bizikletan iristeko, errepidera atera beharra dago, oso zati txiki batean, baina oso zati txarra da. Bidegorritik zubitxo bat egitea eskatzen da. Gurasoei kotxea hartzea behartzen zaie haurrak ezin direlako era honetan bakarrik joaten utzi.

Ekonomikoki irtenbidea erraza ez dela erantzun du alkateak, "Ura"rekin kontsultatu behar dela eta azpiegitura handia behar duela, baina eskaria jasotzen dute.

Eta besterik gabe Udal Kirol Kontseiluari amaiera eman zaio 20:45tan.

Oiartzunen, 2012 ko ekainaren 5 ean.